

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA 2023 OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA GARAPEN PROIEKTUETARAKO (EUSKO JAURLARITZA)

**Eskaerak egiteko epea: 2023ko ekainaren 10etik
uztailaren 10era arte**

Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak:

Ikerketa Sanitarioko Zentroen kategoriako akreditazioa duen ZTBESaren agente batek, gutxienez, hartu behar du parte diruz lagundu daitezkeen proiektuetan edo jardueretan.

Deialdi honek LAU laguntza ildo bereizi barne hartzen ditu:

- a) Ikerketa sanitarioko jarduerak sustatzea. **Tipologia hau ez dago UPV/EHUra irekia.**
- b) Ikerketa sanitarioaren jarduera areagotzea. **Tipologia hau ez dago UPV/EHUra irekia.**
- c) Izaera estrategikoko osasun-ikerketa sustatzea.
 - laguntza-lerro hau irekita dago 3.1 artikuluan adierazitako kategorietan akreditatuta dauden ZTBESko agenteentzat, hau da, **kategoria hauetan egiaztatuta daudenak:**
Unibertsitateetako ikerketa-egiturak, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Zabaltzeko Agenteak, Ikerketa Sanitarioko Zentroak, I+G Sanitarioko Erakundeak, Zentro Teknologikoak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ), Enpresetako I+G Unitateak, eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Agenteak.
 - **Ezinbesteko baldintza izango da Ikerketa Sanitarioko Zentroen kategorian akreditatuta dagoen ZTBESko agente batek, gutxienez, parte hartzea. (b+ocruces bizkaia, b+odonostia, b+oaraba, kron+kgune)**

Honako arlo hauetan aurkeztutako proiektuak finantzatu ahal izango dira: medikuntza pertsonalizatua eta terapia aurreratuak, osasun digitala eta big data, gailu eta teknologia medikoak, neurozientziak eta osasun mentala, eta COVID-19.

Proiektuak urtebete eta hiru urte arteko epean garatu ahal izango dira, baina laguntza urterokoa izango da eta 2023an egindako jardueretarako emango da..

d) Interes bereziko ekintza osagarriak:

- laguntza-lerro hau **irekita dago** 3.1 artikuluan adierazitako kategorietan akreditatuta dauden **ZTBESko agenteentzat**, hau da, **kategoria hauetan egiaztatuta daudenak:**
Unibertsitateetako ikerketa-egiturak, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Zabaltzeko Agenteak, Ikerketa Sanitarioko Zentroak, I+G Sanitarioko Erakundeak, Zentro Teknologikoak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ), Enpresetako I+G Unitateak, eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Agenteak
- **Ezinbesteko baldintza izango da BIOEFen adostasun-ziurtagiri bat aurkeztea**, Osasun Pertsonalizatuko RIS3ren Idazkaritza Tekniko gisa (II-G eranskina), proposamena BIOEFi aurkeztu zaiola eta adostasuna lortu duela egiaztatzeko.

Lerro honek osasun arloko interes orokorreko ikerketa eta garapenari laguntzeko ekintzak finantzatzeko ditu, betiere Osasun Pertsonalizatuko RIS3ko gaikako arloetan sartutako jarduera eta helburuei lotuta. Ekintzen helburua lankidetzaz zientifiko-teknologikoa eta enpresa-lankidetzaz bultzatzea izango da, eta/edo I+G+Bko baterako ekimen estrategikoak diseinatzeko eta prestatzeko aholkularitza ematea. Kanpoan geratzen dira ikerketa-proiektuak.

Laguntza urterokoa izango da, eta 2023an egindako jardueretarako emango da.

Erakunde onuradunak:

3. artikulua.- Entitate onuradunak.

1.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES) integratutako agenteek soilik eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan zehaztutako laguntzak, baldin eta kategoria hauetan egiaztatuta badaude:

Unibertsitateetako ikerketa-egiturak, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Zabaltzeko Agenteak, Ikerketa Sanitarioko Zentroak, I+G Sanitarioko Erakundeak, Zentro Teknologikoak, Ikerketa Kooperatiboko Zentroak (IKZ), Enpresetako I+G Unitateak, eta Eskaintza eta Eskari arteko Bitartekaritza Agenteak.

Ondoko esteka honetan kontsultatu daiteke Agenteen zerrenda:

<https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu>

Ikertaldearen baldintzak:

- 1) Talde eskatzaileak hartuko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) agenteek osatutako taldea (3. artikulua) arabera onuradun diren agenteak, hain zuzen) eta, hala badagokio, baita onuradun ez diren beste erakunde batzuek osatutako taldeak ere, baldin eta ikerketa-proiektua proposatzen badute eta bera gauzatzen parte hartzen badute, horretarako, erakunde bakoitzak proiektuko lan-plangintzaren arabera hartzen dituen atzak garatuta

- 2) Finantzaketa zenbait agentek eskatzen badute, proiektu edo jarduera bakoitzean parte hartzen duten agenteetako ikertzaile nagusietako (IN) batek hartuko du bere gain proiektuaren koordinatzailearen izatera. Proiektuaren koordinatzailea den agentea arduratuko da Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzarekin harremanetan jartzeaz, jarraipena eta justifikazioa egiteaz eta informazio orokorra emateaz.
- 3) **Eskabidea aurkeztu den unetik emakida-ebazpena eman arteko aldiari behintzat, talde eskatzaileetako kideek funtzionario-, estatutu- edo kontratu-lotura formalizatua izan beharko dute**, agindu honen 3. artikuluan ezarritakoarekin bat, bai onuradun den ZTBESko agentearekin, bai proiektua egiteko zentroarekin, bai beste erakunde batzuekin, baldin eta agenteak indarreko hitzarmen bat badauka beste erakunde horiekin ikertzailearen lotura babesteko..
- 4) Ikertzaile nagusi koordinatzaileak, eginkizun horren pean, gehienez bi proiektutan hartu ahal izango dute parte, hartara eragotzi gabe 6. artikuluan xedatutakoa. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugarik izango proiektu desberdinetan parte hartzeko.

Aurrekontuak lantzeko argibideak (deialdiaren 7.artikulua begiratu)

| | DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK | DIRU-LAGUNTZA JASO EZINGO DUTEN GASTUAK |
|---------------------------------|---|---|
| LANGILEGOA | Ikertzaileak, teknikariak eta bestelako langile laguntzaileak. Osasun langilea jarduera asistentzialetik liberatzeak eragindako kostuak, % 50era arte | EAEko Sektore Publikoko ZTBESeko Agenteekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura duten langileen kostuak. Langile horiek ezin izango dute inputatu orduko kostua. |
| ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK | <ul style="list-style-type: none"> - Proiektua burutzeko erabilitako material inbentariagarria. - Material suntsikorra eta gastu osagarriak. - Material bibliografikoa. - Emaizak hedatzeari eta transferitzeari lotutako gastuak. - Kanpoko zerbitzuen kontratazioa, eskaeraren memorian adierazi beharrekoa. - erakunde onuradunaren - ikerketa laguntzeko zerbitzu zentral eta orokor batzuk erabiltzeko kostuak, behar bezalajustificatuta badaude eta proiektua behar bezala burutzeko beharrezkoak badira - Onuradunak azpikontratutako jardueraren kostu osoa ezin izango da izan onuradun beraren aurrekontu finantzarriaren % 50etik gorakoa, salbu eta 4. lerroa aurkeztutako proiektuetarako | <ul style="list-style-type: none"> - Altzariak eta instalazioak. - Kudeaketarako ekipo informatikoen erosketa. - Bulegoko material orokorraren finantzaketa (fotokopiak, tonerra edo telefono gastua). |

| | | |
|--------------------------|--|--|
| | (Interes bereziko ekintza osagarriak); izan ere, azken horiek % 90eko muga izango dute, baldin eta argi justifikatzen bada azpikontratatu beharra. | |
| BIDAIAR | <ul style="list-style-type: none"> - Landa-lana - Koordinaziorako bilerak - Kongresu eta konferentzietara joatea | |
| ZEHARKAKO KOSTUAK | Proiektua burutzeko kostu zuzenen % 21 | |

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:
2023ko ekainaren 10etik uztailaren 10era arte.

Eskaerak aurkezteko jarraibideak:

OSASUNeko IKERKETA ESTRATEGIKOEN INDARTZEA

[web](#)

UPV/EHU buru den / koordinatzen dituen proiektuak: Eskaeren aurkezpena Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik formalizatuko da. Eskatzaileak deialdian eskatzen diren eranskinak deskargatu, bete eta bidali beharko ditu helbide honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus

| | |
|--|---|
| 2023ko ekainaren 23ra arte (barne) | II B Eranskina - Agente eskatzailearen Ikertaldea eranskina igortzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proposatutako langileen zerrendarekin, gainbegiratu dezaten. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, mezuaren gailan adieraziz "EJ Osasun Deialdia 2023". Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik ziurtatuko da aurkeztutako langileek ez dutela bateraezintasunik, eta Ikertzaile Nagusiari itzuliko zaio dagozkion oharrekin. |
| 2023ko ekainaren 30era arte (barne) | <p>Eskaerak aurkezteko beharrezko dokumentua igortzea; eskaera horiek <u>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik igoko dira aplikaziora:</u></p> <p>II-A-3 Eranskina - Ikerketa proiektuaren memoria, Agente parte-hartzaile bakoitzaren informazioarekin batera (II-B eta II-C-3 Eranskinak). II-B Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea (adierazitako zuzenketak sartuta). II-C-3 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea. II-D Eranskina - Curriculum vitae normalizatua, ikertaldeko kideena, IP barne (Instituto Carlos III eredu edo FECYT eredu ere onartuko dira).</p> <p>Jarduerarako baldintza gisa, eta dagokien izaera kontuan hartuta, proiektuek legez ezarritako baimenak edota txostenak izan behar dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> i. Etika Batzordearen baimena, hala badagokio. ii. Baldin eta proiekturako giza lagin biologikoak behar badira, euskal Biobankuaren Ziurtagiria eskatu beharko da, eta halakorik behar dutela jakinarazi. |

| | |
|------------------------------|--|
| | <p>Erabili beharreko eredu normalizatuak deialdiaren webgunean egongo dira eskuragarri. Sakatu hemen</p> <p>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik eskaeren aplikaziora igoko dira dokumentuak, eta UPV/EHUko Legezko Ordezkariek sinatutako erantzukizunpeko adierazpena erantsiko da.</p> |
| 2023ko uztailaren 10a | <p>Eskaerak aurkezteko epearen amaiera. Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik bere eskaeraren aurkezpen ziurtagiria bidaliko zaio Ikertzaile Nagusiari.</p> |

Kanpoko Agente bat buru den / koordinatuko dituen proiektuak: Proiektuaren buruak aurkeztuko ditu eskaerak. UPV/EHU n proiektua aurkezteaz arduratzen den pertsonak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar ditu, **2023ko ekainaren 30a BAINO LEHEN**, eranskin hauek: **Iib Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea** eta **II-C-3 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu ditzan. Dokumentu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri.

Dokumentazioa gainbegiratu ondoren, erantzukizunpeko adierazpenaren sinadura kudeatuko da, e-mail bidez igorri beharrekoa UPV/EHUko Ikertzaile Nagusiari, hark proiektu buruari igor diezaion (aplikazio telematikora igo beharko du eta eskaeraren aurkezpena egin).

INTERES BEREZIKO EKINTZA OSAGARRIAK

web

UPV/EHU buru den / koordinatzen dituen proiektuak: Eskaeren aurkezpena Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik formalizatuko da. Eskatzaileak deialdian eskatzen diren eranskinak deskargatu, bete eta bidali beharko ditu e-mail honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus

| | |
|-------------------------------------|---|
| 2023ko ekainaren 23a (barne) | <p>II-B Eranskina - Agente eskatzailearen Ikertaldea eranskina igortzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proposatutako langileen zerrendarekin, gainbegiratu dezaten. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, mezuaren gaiari adieraziz "EJ Osasun Deialdia 2023". Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik ziurtatuko da aurkeztutako langileek ez dutela bateraezintasunik, eta Ikertzaile Nagusiari itzuliko zaio dagozkion oharrekin.</p> |
| 2023ko ekainaren 30a (barne) | <p>Eskaerak aurkezteko beharrezko dokumentua igortzea; eskaera horiek Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik igoko dira aplikaziora:</p> <ul style="list-style-type: none"> - II-A-4 Eranskina - Ikerketa proiektuaren memoria, - II-B Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea (adierazitako zuzenketak sartuta). - II-C-4 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea. |

| | |
|------------------------------|--|
| | <p>- II-G eranskina BIOEFen adostasun-adierazpena, Osasun Pertsonalizatuko RIS3ren Idazkaritza Tekniko gisa, zeinak egiaztatuko baitu agente koordinatzailea BIOEFekin harremanetan jarri dela, deialdi honetan eskatzen duen proposamena aurkezteko</p> <p>Jarduerarako baldintza gisa, eta dagokien izaera kontuan hartuta, proiektuek legez ezarritako baimenak edota txostenak izan behar dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Etika Batzordearen baimena, hala badagokio. 2. Baldin eta proiekturako giza lagin biologikoak behar badira, euskal Biobankuaren Ziurtagiria eskatu beharko da, eta halakorik behar dutela jakinarazi. <p>Erabili beharreko eredu normalizatuak deialdiaren webgunean egongo dira eskuragarri. Sakatu hemen</p> <p>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik eskaeren aplikaziora igoko dira dokumentuak, eta UPV/EHUko Legezko Ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena ere erantsiko da.</p> |
| 2023ko uztailaren 10a | Eskaerak aurkezteko epearen amaiera. Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik bidalitako eskaeraren aurkezpen ziurtagiria bidaliko zaio Ikertzaile Nagusiari. |

Kanpoko Agente bat buru den / koordinatuko dituen proiektuak: Proiektuaren buruak aurkeztuko ditu eskaerak. UPV/EHUen proiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar ditu, **2023ko ekainaren 30a BAINO LEHEN**, eranskin hauek: **II-B Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea** eta **II-C-4 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu ditzan. Dokumentu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri:

UPV/EHUren datuak:

Hauek dira eskaera betetzeko eskatzen diren Erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Legezko ordezkaria:** Inmaculada Arostegui Madariaga
- **Egoitza Soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta Kodea:** 48940
- **Udalerrria:** Leioa (Bizkaia)
- **Kontaktuaren posta elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus
- **Kontaktuaren telefonoa:** 94 601 80 08

Kontaktua:

| | |
|--|--------------------------|
| IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA | OSASUN SAILA (EJ) |
|--|--------------------------|

convocatorias.dgi@ehu.eus

investigacion-san@euskadi.eus